

# Lantokietan aske!

## Aske izateko neurri eraginkorrak. Zuriketa arrosari ez!

2024ko ekainaren 28 honetan, sexu askatasuna aldarrikatu nahi dugu, baita lantokietan ere. Aske izateko neurri eraginkorrak behar ditugu. Zuriketa arrosari ez!

Eskuin muturraren gorakadaren eta diskurtso erreakzionarioen hedapenaren aurrean, mugimendu transmaribolloaren borrokari esker instituzioetan lege eta politika publikoetan aurrera urratsak egiten ari diren testuinguruan gaude: Espainiako Estatuko Trans Legearen ondotik, otsailean onartu zen Eusko Legebiltzarrean EAEko trans legea deiturikoa, esaterako.

Baina nahikoa al dira neurri hauek LGTBQ+ kolektiboaren eskubideen defentsarako, edo, are gehiago, heteroarautik kanpo gure askatasuna bermatzeko?

Instituzioek eta patronalak dituzten zuriketa arrosezko jarre-  
ren aurrean, LABetik lantokietan aske izateko neurri eraginkorrak eta errealak exijitzen jarraituko dugu, gure lan sindikalaren bidez.

Jakin badakigu instituzio eta patronalaren aldetik ez dela etorriko guk desio dugun mundua eraikitzeke proposamen erradikalik, baina eskuin muturraren eta diskurtso erreakzionarioen gorakada bizitzen ari garen honetan, garrantzitsua da LGTBQ+ kolektiboko kideon bizitzen alde bermeak jartzea.

Gaur gaurkoz ez-nahikoak diren lege eta "berdintasun politiken" aurrean, guk politika feministak aldarrikatzen jarraituko dugu. Egiturazko aldaketa errealak eta bitartekoak behar ditugu. **Enpleguaren eremuan, LGTBQ+ kolektiboaren zapalkuntza espezifikoak identifikatu, landu eta aurre egiteko protokolo eta plan espezifikoak behar ditugu.**

Horrekin batera, mugimendu transmaribolloak deitutako mobilizazioetan parte hartzera dei egiten dugu.

**Sexualitatea askatasun osoz bizitzeko hautua erabat zilegia dela aldarrikatu nahi dugu:** kapitalismo heteropatriarkalak inposatutako leku, eredu eta roletatik askatzen gaituen hautu bezala ulertzen dugu. Izan ere, sexuaren araberako lan

banaketa posible egiten duena bikote heterosexualean oinarritzen den familia nuklearra da. Familia funtsezko instituzioa da produkzio eta erreproduktzioarako egungo sistema existituzeko, baita betikotzeko ere.

**Helburua heteroaraua gainditu eta gure harreman eta identitateak modu askean erabakitzeko burujabe izatea delako,** eman diezaiegun su heteroarauaren armairuei. Saretu, ahaldundu, salatu eta erantzuteko konpromisoan berretsiz, lantokietan ere aske izan nahi dugu!

1. 2024ko ekainaren 28 honetan, sexu askatasuna aldarrikatu nahi dugu, baita lantokietan ere. Aske izateko neurri eraginkorrak behar ditugu. Zuriketa arrosari ez!
2. Eskuin muturraren gorakadaren eta diskurtso erreakzionarioen hedapenaren aurrean, mugimendu transmaribolloaren borrokari esker, instituzioetan lege eta politika publikoetan aurrera urratsak egiten ari diren testuinguru batean gaude.
3. Baina neurri horiek ez dira nahikoak LGTBQ+ kolektiboaren eskubideen defentsarako, ezta heteroarautik kanpo gure askatasuna bermatzeko ere. Instituzioen eta patronalaren jarreretan zuriketa arrosa gailentzen da.
4. Neurri eraginkor eta errealak exijitzen ditugu: ez-nahikoak diren lege eta "berdintasun politiken" aurrean, politika feministak: **enpleguaren eremuan LGTBQ+ kolektiboko zapalkuntza espezifikoak identifikatu, landu eta horiei aurre egiteko protokolo eta plan espezifikoak behar ditugu.**
5. Horretaz gain, mugimendu transmaribolloak deitutako mobilizazioetan parte hartzera deitzen dugu.
6. **Sexualitatea askatasun osoz bizitzeko hautua erabat zilegia delako: kapitalismo heteropatriarkalak inposatutako leku, eredu eta roletatik askatzen gaituen hautua.** Saretu, ahaldundu, salatu eta erantzuteko konpromisoan berretsiz, lantokietan ere aske izan nahi dugu!

